

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Zirauki*



Aurkibidea

# Udalerria: Zirauki

## Sarrera



Zirauki Nafarroako udalerria da. Lizarrako merindadeko herri honek 505 biztanle zituen 2012ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera. Nafarroa erdialdean kokatzen da, Lizarrako merindadearen ekialdeko muturrean, N-111 errepidean, Gares-Lizarra norabidean, Garestik zazpi kilometrora. Nafarroako hiriburutik 30 kilometrora dago. Ziraukik Gesalatzekin egiten du muga iparraldean, Mañerurekin ekialdean, Deierri eta Villatuertarekin mendebaldean, eta Mendigorriarekin hegoaldean.

- **Biztanleak:** 505
- **Euskaldunak:** -

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **10**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **10**

## Proiektuak

- Gazte gara gazte

## Hizlariak

### Artzai Gaspar Arraiza (1997)



1997ko uztailaren 2an Iruñean jaioa, Ziraukin bizi izan da beti. Seme bakarra da, eta Ziraukikoa du ama eta Lizarrakoa aita. Batxilerra amaitzen ari zen elkarrizketa egin genionean. Bakarka elkarrizketatu genuen, eta baita Artazuko [Lur Albizurekin](#) batera ere, Garesen. Hainbat gairi buruz mintzatu zitzaigun: ikasketak, Nafarroako eremu “ez euskalduna”, parranda, Korrika, herrigintza, musika, ikasle mugimendua, irakurzaletasuna eta beste.

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Euskara

### 1.1. Lagunarteko hizkuntza I

- **Hizlaria(k):** Gaspar Arraiza, Artzai
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Erref:** ZIR-001/004
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:06:49. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Euskara » Euskararekiko sentimendua
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- **Laburpena:** Bere lagun taldeaz dihardu. Batzuk Iruñeatik Ziraukira joaten diren "veraneanteak" dira eta besteak, berriz, Lizarran eskolan egin dituenak. Herrian lagunekin euskaraz gutxi mintzatzen dela onartzen du, baina Lizarrako lagunekin euskaraz egiten du beti.

#### Transkripzioa

- Izan ere, zuk lagun taldea ere... arraroa ez dugu esango, baina berezi xamarra duzu ezta?

- Bitxia, bai. Bueno, herriyan badaukat kuadrilla, ez? Hor hamazazpi edo izango gara eta, gehienak bueno Iruñeakoak dira eta asteburuetan etortzen dira, udan, beraneanteak deitzen ditugunak. Eta horietatik ba gehienek badakite euskaraz, baiña herrian ez gara batere saiatzen, hori aitortu behar dut, euskaraz egiten. Baina gero beste aldetik baditut ere Lizarrako betiko lagunak ere, betiko... nire klasera etorri direnak, gero lagun berriak ere egin ditudanak...Eta hor ere, esan behar da, hor bai saiatzen garela asko euskaraz egiten. Hor kontraste bat sortzen da. Eta askotan ere pentsatzen dut, zergatik ez gara saiatzen herrian egiten, ez? Lizarran egiten dugu, eta zergatik Ziraukin ez? Baina ingurumenak hor ere badu zeresana, ez? Ez dakit... Ziraukin ere ez dago ohitura haundirik eta badago jendea euskaldun berria dena eta saiatzen dena, ez? Baina ez dakit, kontrastea hor nabaritzen da, bai. Bitxia da nire egoera ze... ez dakit, bi lagun talde ditut eta kuadrillan adibidez ez dugu iñoiz egiten, eta Lizarrako horretan bai. Orduan pues, arraroa da bai.

- Eta bi laguntalde horietan, denak dira diferenteak? Lagun guztiak... ez dago Ziraukiko kuadrillatik baten bat zurekin Lizarrara joaten denik, edo bai?

- Ez, badaude... badaude bi, esango genuke, bai, joaten direnak Lizarrara, baina ez dira D eredukoak, beraz ez dakite euskaraz, eta besteak ez, beti Iruñeara jotzen dute, beraz... ez, ez dira joaten.

-

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

## **1. Aurkezpen pertsonala (ZIR-001/001)**

Artzai Gaspar Arraiza Iruñan jaio zen 1997ko uztailaren 2an. Iruñan jaio zen arren, Ziraukin bizi izan da bere gurasoekin. Ikasketetan zientzien mundutik, letren mundura nola igaro zen kontatzen du.

## **2. Hezkuntza (ZIR-001/002)**

Artzairen gurasoek semeak euskaraz ikastea nahi zuten eta horregatik, Lizarrako ikastolara eraman zuten. Ziraukin eskola txiki bat egon arren, ez zegoen euskaraz ikasteko aukerarik. Bere aitak badaki euskaraz eta amak euskaraz ez jakin arren, etxean euskaldunak sentitzen dira.

## **3. Euskararekiko harremana (ZIR-001/003)**

Artzaik gurasoei asko eskertzen die hezkuntza euskalduna eman izana. Euskaraz ikasteak beste mundu ikuskera bat eman dio eta hezkuntza hori jasoko ez balu bere bizitza bestelakoa izango litzatekeela badaki.

## **4. Lagunarteko hizkuntza II (ZIR-001/005)**

Bere lagun "veraneante" gehienak Iruñakoak diren arren, koadrilako bi arrasatekoak ditu eta haiekin euskaraz jarduten du Artzaik. Lagun horiek euren euskalkian hitz egiten dute eta hortik ere ikasi duela diosku.

## **5. Ikasle mugimendua I (ZIR-001/007)**

Artzai ikasle mugimenduan sartuta dago eta mugimendu hori zer den azaltzen du. Nafarroan mugimendu hau euskararen aldeko borrokarekin lotuta dago. Ikasle mugimendu hau, Euskal Herri mailakoa da. Artzai, derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatzean sartu zen bertan. Ikasle mugimenduak nola funtzionatzen duen kontatzen du.

## **6. Ikasle mugimendua II (ZIR-001/008)**

Ikasle mugimenduko kideak ikastetxetan biltzen dira eta ondorioz, hezkuntza sistemaren menpeko dira neurri batean. Alegia, ikasgela batean bildu nahi badute zuzendaritzaren baimena behar dute ikasleek bilerak egiteko.

## **7. Nafarroan D ereduan ikasteak dakartzan zailtasunak (ZIR-001/010)**

Nafarroan D ereduan dabilzanak eskolan ordu bete gehiago eman behar dute. Neurri horren ondorioz, D ereduko ikasle askok ez dute etxera itzultzeko garraio publikoa hartzeko aukerarik eta horregatik, guraso askok beste eredu batzuetan sartzten dituzte seme-alabak. Artzairentzat egoera larria da benetan eta berari egoera horrek nola eragiten dion kontatzen du.

## **8. Kirolari ibilbidea (ZIR-001/012)**

Artzai kirolaria izan da betidanik. Taekwondon, esku-pilotan eta mendiko bizikleta lasterketetan ibili da. Azken honetan, Lizarrako talde batekin txapelketetan ibili izan da duela bi urtera arte. Berarentzat txapelketa mailan ibiltzea presio handia zen bere fisikoa asko zaindu behar baitzuen. Horrez gain, kirola eta ikasketak uztartzea zaila egiten zitzaion eta ondorioz taldea uzteko erabakia hartu zuen.

## 9. Bizikletan ibiltzeko gustuko tokiak (ZIR-001/013)

Bizikletan ibiltzeko aukera handia dago Euskal Herrian. Artzaik berak gustuko dituen ibilbideak zein diren kontatzen du.

---

Zirauki (Nafarroa) | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-08

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com